

XIX. mendeko Gizartea

1789. urtean Frantzian izandako iraultzari esker, Europako zenbait lurraldetan absolutismoa, hau da, erregeak botererik handiena duen sistema politikoa, deuseztatzen hasi zen, gizon-emakume guztion berdintasuna eta askatasunaren ideiak zabalduz. Hori zela eta, gertakari honek **Aro Garaikideari** hasiera eman ziola esaten da. Izan ere, burgesiak ez zuen onartzen botere guztia noblezia eta errege absolutuaren esku egotea. Horregatik, ideia berriak defenditu zituen, nobleziaren pribilegioak deuseztatuz eta gobernuan aldaketak sortaraziz: konstituzioa idatzi, hauteskunderen bidez aukeratutako parlamentuak sortu eta hiritarren eskubideak onartzen hasi ziren. European aldaketa hauek Erresuma Batuan eta Frantzian gauzatu ziren batik bat. Europatik kanpo, berriz, Estatu Batuetan.

BURGESIA

XVIII. eta XIX. mendeen bitartean, asmakuntza handiak gauzatu ziren, batez ere lehen esandako lurraldeetan. Hauek zirela medio, ekonomia, zientzia eta gizartea erabat aldatu ziren. Izan ere, asmakuntza hauek industriari gorakada handia eman zioten, INDUSTRIALIZAZIOA sortuz. Berari esker, hirietan edonon lantegiak zabaltzen hasi ziren. Hala ere, lantegiak eraikitzeko, makineria erosteko edo lehengaiak lortzeko dirutza handia behar zen. Burgesak izan ziren diru inbertsioa egin zutenak. Horrela, burgesiak betiko nobleziarekin batera talde nagusi bihurtzea lortu zuen.

Burgesia hirietako zabalguneeetan bizi zen, langileen auzoetatik urrun. Burgesak erosotasun guztiak zituzten pisu handietan bizi ziren (Argi elektrikoa zuten, berogailuak...) eta, gainera, zerbitzariz inguraturik zeuden. Horrez gain, janzkera eta dibertsiorako modu berriak modan ipini zituzten, hala nola, opera, antzerkia, e.a.

LANGILEAK

Nekazari asko hirietara bizitzera eta lan egitera joan ziren, lantegietako langile bihurtuz. Lan gogorrak betetzen zituzten eta gaizki ordainduak ziren; gainera, lanorduak hamabi edo gehiago ziren egunero.

Langileak hirien inguruan bizi ziren, kale estuak zituzten auzoetan, hain zuzen. Haien etxebizitzak hezeak ziren eta erosotasunik gabekoak. Aurrekoa gutxi balitz, beren elikadura oso eskasa zenez, izurrite eta gaixotasun ugariak zituzten. Honen ondorioz, talde honen heriotza handia zen.

Aiten soldata familia osoa mantentzeko aski ez zenez, emakumeek ez ezik, 10 urte inguruko umeek ere lantegietan egiten zuten lan, emakumeek gizonen baino gutxiago kobratuz.

Lan-baldintzei eta bizimodu gogorrari aurre egiteko asmoz, langileak **sindikatu**etan (langile-elkartuetan) antolatzen hasi ziren. Hauei esker, denbora aurrera joan ahala, lan-baldintzak hobetuz joan ziren: soldatak igo, haurren lana debekatu... Gauzak horrela, apurka apurka sindikatuak legalizatu ziren eta **greba eskubidea** onartu zen.